

OROIMENAREN ESPAZIOA: OROIMEN KOLEKTIBOA ETA ESPAZIO EZTABAID ATUAREN BERRERATZEA ARGENTINAKO ESMAN

Emily E. Parsons

Doktoretza Ikaslea, Literatura Konparatua

Kaliforniako Unibertsitatea, Santa Barbara

Aipatzeko gomendioa || PARSONS, Emily E. (2011): "The Space of Remembering: Collective Memory and the Reconfiguration of Contested Space in Argentina's ESMA" [artikulua linea], *452°F. Electronic journal of theory of literature and comparative literature*, 4, 29-51, [Kontsulta data: dd/mm/yy], < <http://www.452f.com/index.php/eu/emily-parsons.html> >

Ilustrazioa || Patricia López

Itzulpena || Aitor Fuentes

Artikulua || Jasota: 09/09/2010 | Komite zientifikoak onartuta: 23/10/2010 | Argitaratuta: 01/2011

Lizentzia || 3.0 Creative Commons lizentzia Aitortu - ez merkataritzarako - lan eratorririk gabe



Laburpena || Artikulu honetan abian den ESMA museoaren garapena aztertzen da. Artikuluak defendatzen du ESMAren espazio fisiko ikusgai eta publikoan sustraiturik dauden oroimen kolektiboak, norberaren eratzeko lanak eta nazioa gogoratzeko edo ahazteko desira kontrajarriek museoa karakterizatzen dutela.

Gako-hitzak || Oroimen Kolektiboa | Espazio Publikoa | ESMA | Gerra Zikina | Torturaren errepresentazioak.

Summary || This paper explores the ongoing history of the ESMA museum's development and argues that the intrinsic and conflictual collective memory work involved is characterized by competing desires to remember and to forget, rooted in the physical, visible, and public space of ESMA.

Keywords || Collective Memory | Public Space | ESMA | Dirty War | Representations of Torture.

«La fotografía no tiene fin. La imagen que había conseguido reconstruir, el retrato de mi hermano de los hombros para arriba detenido en la ESMA resultó estar incompleta».

Marcelo Brodsky
La Camiseta

OHARRAK

1 | *Escuela de Suboficiales de Mecánica de la Armada.*

2 | *Comisión Nacional sobre la Desaparición de Personas.*

0. Sarrera

Armadaen Mekanika Eskola, ESMA¹ gaztelerazko akronimoaz ezagunago dena, Libertador Etorbidean dago kokatuta, Argentinako hiriburu zalapartatsua, Buenos Aires, zeharkatzen duen etorbide nagusian. Aintzira eta parkez inguratua, 17 akreko (68.796,56 m²) zatia betetzen duen eraikin multzo hau hiriko dotoreenetarikoa da. Jada ikono bat den eraikin honi, bigarren solairurainoko Greziar estiloko kalostrape batek ematen dio sarrera, aldi berean belardi eder batek nabarmentzen duena (International Justice Tribune, 2008:1)., ESMAren historia nahasi eta zirtzilak kontrajartzen du edertasun estetiko hori. 1976 eta 1983 arteko Gerra Zikinaren garaian, ESMA Argentinako atxiloketa ilegalen gune garrantzitsuenetakoa izan zen. Aro horretan, Prozesua edo El Proceso izeneko armadaen gurutzada moralak “Mendebaldeko Baloreak” inposatzeko ahalegina egin zuen, ezker zein eskuin politikoko balizko terrorismotik defendatu beharra argudiatuz. Honela, ESMA atxiloketa ilegalen, torturen, eta izu-kanpaina mehatxupean jarri zezakeen edonoren aurkako hilketen gune bilakatu zen.

Junta militarrek, estatu terrorismoa aurrera eramateko bide propioa aurkitu zuen ESMAko eraikinetan, bertara 5.000 asaldatzailetik gora eraman baitziren, eta espeteratutako gehienak erail zituzten. Armada ezkailia izan zenean, Pertsona Desagertuen Komisio Nazionala (CONADEP)² eratu zuen orduan presidente zen Raúl Alfonsínnek, Gerra Zikinaren garaian izan ziren ehunka atxiloketa ilegal gune eta kontzentrazio-esparruren ikerketak bideratzeko asmoz. Txostenak honela deskribatzen du ESMA: “Itsas Armadaren Mekanika Eskola (ESMA) ez zen soilik tortura erabiltzen zen atxiloketa gune bat, burututako krimenak estaltzeko biktimak sarraskitu zituen organizazio konplexu baten gune nagusi ere izan baitzen” (CONADEP, 1986: 79). ESMA biktimak torturatu eta basatiki erailtzeko gune bezala erabili zuten, baita estatu biolentzia autorizatu eta bideratzeko beharrezkoak ziren operazio militarrek burutzeko ere, giza eskubideak bortizki urratu baitzituzten. 1983an gobernu demokratiko batek Junta ordeztu zuenenean, ESMAk nazioaren kontzientzian utzitako arrastoa ez zen erraz ahaztu, bereziki CONADEP txostena kaleratu ondoren, eta Itsas Armadaren Mekanika Eskola azkar bihurtu zen errepresio militarren ikur.

Azken urteetan, ESMAk esanahi aldaketa nabarmena izan du espazio publikoari dagokionean, baita behin eta berriro negoziatzen diren nazioko herritarren oroimen kolektiboetan ere (Foster, 2006: 137). ESMA bere herritarren zapaltzaile, torturatzaile eta hiltzaile den estatu baten sinbolo den horretan, zaila da beratu Gerra Zikinaren, biktima eta Desagertuen familien, eta giza-eskubideen testigantzarako espazio publiko bihurtzeko prozesua. Transformazio prozesu horrek, aldi berean gogoratu eta ahazteko desira kontrajarriak kontutan hartuta, iraganaren³ onarpena gauzatzeko nazioaren borroka sinbolizatzen du. Estatuaren krimenak gogoratu eta ezagutarazi daitezzen, giza-eskubideen taldeak, hiri zein estatu mailako legegileak eta bizirik dirauten biktimak, espazio hori militarren odolez zikindutako eskuetatik kendu eta beraiek baliatzeko lanean aritu dira. Datozen urteetan, ESMA museo bihurtzeko asmoa dute, bisitariak hezi eta Gerra Zikinaren biktimei omenaldia eskaintzeko. Artikuluak defendatzen du ESMAren espazio fisiko ikusgai eta publikoan sustraiturik dauden oroimen kolektiboak, norberaren eratzeko lanak eta nazioa gogoratzeko edo ahazteko desira kontrajarriek museoa karakterizatzen dutela.

1. Museo Baterako Bidean

ESMAren 34 eraikinek osatzen duten espazioa erabili ahal izateko dagoen borroka adierazten du kontzentrazio-esparru batetik museo bat sortzeko ideia ez dela nazioaren aho bateko kontsentsutik sortu. Batzuek Gerra zikineko ankerkeriak ukatu eta isilean onetsi dituzte batzuetan, eta besteek aldiz, gradu goreneko ofizial militarrek tartean, aurrera egiteko biderik egokiena iragan hori nazioaren historiari ezabatzea dela iritzi izan dute. Museo bat garatzearen garrantzia zigorrik gabeko kultura batera estuki lotuta zegoen eta oraindik dago; ez baita kalte-ordainik egon, eta zigorrik jaso ez duten diktadurako kriminalak baitaude, nahiz eta 2003an 1980ko amnistia legeak indargabetu ziren. Kriminal horietako asko bizirik eta aske daude Argentinan eta ez zaie inoiz burututako gizateriaren aurkako krimenengatik erantzukizun ofizial edo legalik eskatu (Daniels, 2008: 3).

Museoa sortzeko bideak kontaketa historiko laburra merezi du, espazio hau bereganatzeko gobernutik zein gobernuz kanpo bideratu diren borroka islatzen dituena. 1998an, Carlos Menem presidentek ESMA Puerto Belgranoko Itsas Basera transferituko zuen dekretu bat sinatu zuen. Dekretua konstituzioaren aurkako deklaratu zen 2001ean. 1999an, lider militar asko, Defentsa ministroa barne, ESMA museo edo ikastegi bihurtzearen aurka agertu ziren. 131 erresoluzioa 2000. urtean iritsi zen, "Oroimenaren Museo bat Sortzeko Lan-taldea" eratuz, "Berriro Ez Oroimenaren Institutua" izenburu ofizialarekin.

OHARRAK

3 | Theodor W. Adornok Aufarbeitung aztertzen du. Alemaniak gerraondoan hartu zuen posizioa aztertzen du, Nazi garaiko gerizpeetatik irtetzeko nahia adierazten duena eta, hau eginez iranaga sahiestu, Adornok "biziagi" dakusana (1986: 115).

Geroago, institutu hori iritzi ezberdinengatik desegin zen. Gobernadoreak “Oroimenaren Espazioa”⁴ proposamena aurkeztu zuen 2001eko legealdian. 2002an, 961 Legeak “Oroimenaren Espazioa Institutua” sortu zuen “70. eta 80. hamarkadaren hasierako Estatu terrorismoaren oroimenaren transmisioa gorde eta babesteko” asmoarekin (memoriaabierta.org). Oroimenaren Museoaren sortze prozesuko momentu garrantzitsu batean 2004an, Nestor Kirchner presidenteak ESMA Oroimenaren Museoarentzako gune bihurtzea ziurtatuko zuen hitzarmena sinatu zuen. Urte berean beste hitzarmen bat abian jarri zuen, oraindik hiri legealdiak berretsi beharko duena, hiri eta nazio gobernuek “Oroimenerako eta Giza- eskubideen Sustatze eta Defentsarako Espazio” baten alde lan egin dezaten (oroimenaabierta.org)⁵.

2. Ahaztea

Gobernua eraikinak mantendu ala eraitsi zalantzan izan da (Guembre, 2008: 64). Anbibalentzia horren jatorria gobernu Argentinarra eta museoaren sortzeko lanean ari diren giza- eskubideen aldeko talde batzuen arteko erlazio nahasia da. Talde horietako askok, Plaza de Mayo Ama eta Amonak barne, diktadura militarren garaian izan ziren Desagertuak bilatzeko (Guembre, 2008: 63). Arrisku handiak hartuta, Ama eta Amonak protestarako antolatzen zituzten espektakuluaren bitartez ezagutarazi ziren Plaza de Mayon, Casa Rosada gobernu gune nagusia dagoen eta historiako hainbat une nahasiren lekuko izan den tokian. Plaza de Mayo espazio publikoan ikusgai izateak militarren eragindako urduritasuna, nazioko politikan hain sakonki sustraiturik dagoena, mantendu egin da ESMA museo bihurtzeko borroka horretan diktadura uzkaile zenetik.

Gerra Zikinaren ostean, armadak eraikinak erabiltzen jarraitu zuen Itsaso-armada eskola modura. ESMA ez zen 2007ra arte guztiz hustu, Kirchner presidenteak ESMA museoarentzako gune ziurtatu eta hiru urte pasata. Tokia utzi aurretik, soldaduek tiro-jomuga bat jarri zuten sarrerako atean eta eraikin batzuk suntsitu zituzten (Daniels, 2008: 4). Etsaitasun akzio horien bidez, gehi pertsona zein fakzio batzuegandik ageri zen erresistentziaren bidez, argi dago espazio horren erreklamazio huts bat egitea ez zela posible, eta iraganeko oroimen partikular horiek gaur egun eztabaidatu behar izango zituzten.

ESMAko eraikinek iragana gogorarazten zioten armadari; iragana ahaztu eta besteen oroimenetik desagertzea nahi zuten, baita tokiaren suntsitze fisikoarekin oroitzapena nazioaren oroimenetik kentzea ere. Logika horren eta Gerra zikinean erabilitako taktiken artean paralelismo bat dakusagu. Argentinako gobernuak “nacht

OHARRAK

4 | *Espacio para la Memoria*

5 | *Memoria abierta edo “Oroimen irekia” bost giza- eskubideen aldeko taldek osatzen duten elkarte da. ESMA espazioaren bereganatze prozesuan ezinbestekoak izan dira. Talde hauetako gehienak Gerra Zikinaren garaian sortu ziren Desagertuak bilatzeko (Guembre, 2008: 63).*

und nebel erlass” araua jarraituz hartu zituen biktimak martir bihurtu ez zitezela eta jendeak estatua errudun zein erantzule izendatzeko ahalmena gutxitzeko (Arditti, 1999: 13)⁶ Hainbat gorpu moztu eta hildakok Argentinako kaleak bete zituzten, baina estatuak laster bideratu zituen hildakoen etengabeko agertzearen erruak beste nonbaitera⁷. Malvinetako Gerraren hondamendiak Juntaren erortze nahitaezkoa zekarrenez, armadak dokumentu, gorpu eta krimenen frogak suntsitzeari ekin zion. Hainbat urte beranduago, frogak fisikoak desagertzeko asmoz, ESMako eraikinak apurtu nahi izanak oroimenaren aurka egindako ahaleginaren birsaiatze bat dirudi.

Armada eta gobernuko beste kargu batzuetako kanpo presioa, museoaren proiektua aurrera eramanez nahi duten giza-eskubideen aldeko taldeen barne iskanbilari gehitu zaio (Daniels, 2008: 4). Bi taldeak ari dira iraganeko oroitzapenen lanketan, objektiboa eta faltsutua izan ez den historiari ez dagoela onartuz. Maurice Halbwachs-ek, “oroimen kolektibo” terminoaren asmatzaile den soziologo frantsesak, nazio baten iragana egungo beharren arabera eraikitzen dela nabarmentzen du (McCormack, 2007: 4). Armadak ez du jendeak gehiago epaitzea nahi. Ordea, giza-eskubideen aldeko taldeek, kasu askotan biziraun dutenek eta Desagertuen familiek osatuak, estatuak Gerra Zikinaren garaian burututako terrorismo krimenak ezagutarazi eta oroitzapen iraunkorra ziurtatuko duen museo espazio publiko bat nahi dute. Zentzu honetan, ESMaren jabetza fisikoak nazioaren oroimenaren gordetze sinbolikoa dakar berarekin. Museoa eratzearen aurka daudenek “aurrera jo” nahiari ematen diote garrantzia, isilean jakinda ESMA oroimenaren gune bihurtzeak jendeak militarrek gehiago gaitzestea ekarriko lukeela jendearengandik. Armada ESMAtik fisikoki kenduta, krimenak posible egin eta giza-eskubideen urraketa Argentinaren etorkizunerako beharrezkoa zela sostengatu eta irmotu zituen “fikziozko boterea” desagitekin batera (Scarry, 1985: 18).

Kontrako taldeen Gerra Zikinarekiko oroimen eta narratiba kontrajarriak, “informazio iturri ezberdinen presioa medio, berrantolatze iraunkor batean” (Sorlin, 1999: 105) dira. ESMaren ikusgaitasun horretan, ESMaren inguruko hausnarketa eta borroka oroimen lan eztabaidagarri eta lehiakorren iturri izan dira, eta, zer gogoratu eta zer ahaztu behar horrek nazio baten kontzientzia gatazkatsua agerian uzten du. Oroimen kolektiboa hautatu ahal izateak gogoratu zein ahazten denaren garrantzia laburbiltzen du. Nazio kontzientzia indartzen duten “kanpainak” dira erakargarrienak jendearentzat. Giza-eskubideen taldeek urte askotako borrokari esker bakarrik lortu dute ESMA beraiena bezala ikusia izan dadila eta beraien ikuspuntuan oinarritutako nazio oroimenaren prozesu bat hastea.

OHARRAK

6 | Argentinak Alemania Naziarekin izan zuen erlazioa kontutan hartuta, ez da harrigarria SSeK erabilitako hainbat teknika bereganatu izana. “Gaua eta behe-lainoa dekretua” ez zen salbuespen bat izango.

7 | Argentinako armadaren asmakizunak agerira ez irtetea gero eta zailagoa zen: “Errepikatzen ziren ankerkerian frogak – gorpuak, zatituta, Plata Ibaian zehar” – gehituz joan ahala, ukapen ofizialak gero eta susmagarriagoak ziren, baita ematen ziren azalpenak ere” (Feitlowitz, 1998: 25).

3. Oroitzea

Bizirik iraun dutenen eta Desagertuen familientzako, museoaren presentzia iraganeko trauma bereganatu eta zuzentzeko modu bat da. Museoaren bitartez, talde horiek, alde batetik, beraien familietako kideak omenduko dituzte eta bestetik, gai izango dira krimenetan burutu ziren giza-eskubideen urraketak narratiba bat eraikitzeko eta horrekin jendea hezteko. Esan beharra dago familia askok ez dutela informaziorik jaso eta ez dakitela desagertutako, eta ustez hildako, familiako kideak non dauden. Haien oroimena museo baten testuinguruan kokatuz eta oroimen narratiba koherente bat sortuz, orain arte traumaren aldarrean zapuztu izan dizkien dolu ekintzetan parte hartzen ari dira. Eremuak 2007ko urrian hustu ziren ofizialki, eta ESMA Oroimenaren Institutuak hartu zuen giza-eskubideen nazio idazkaritzaren eskutik. Museoko proiektuaren hornitzaileek bideratu behar zuten zer egin konkretuki eraikinekin⁸. ESMAko eraikinen antolakuntza hainbat talderen artean banatu da, eraikin gehienak kultura gune, Oroimen Nazionalaren Artxibo eta giza-eskubideen erakustoki bihurtuz (International Justice Tribune, 2008: 2). Guztiek museo ikuspegi ez-tradizionalei dagozkie. Oroimenaren Museoaren garapera abian den prozesu bat izanda ere, ESMAko eraikinetako batzuetan burutu diren ekintzek agerian uzten dute jada oroimenaren errepresentazioen interpretazioak zein anitzak diren.

Estatu biolentziaren ikur diren eraikinek, giza-eskubideen talde, biktimen familia, estatu entitate, intelektual eta artistak banatu dituzte, oroimen auziak kontuan hartuko dituen espazio bihurtzeko ahalegin horretan. Gainera, museoaren agintaritzak bi taldetan banaturik dago, Buenos Aireseko hiriaren ordezkariena eta Argentinako Gobernu Nazionalarena. izenburu ezin egokiagoa duen, *Memoria en construcción* liburuan, Gerra Zikiraren garaian Espainiara erbesteratu zen eta anaia ESMA atxiloturik zuen Marcelo Brodsky, ESMAko Oroimenaren Museoaren garapenarekin erlacionatutako oroimen aferak lantzen dituen puntako intelektual eta artisten argazki, saiakera eta testuak batzen ditu. lanaren hasieratik, eztabaidaren muina ukitzen duten hainbat premiazko galdera botatzen ditu: “Nola azaltzen dira tortura eta sadismoa? Nola bihurtzen da laztura espazio bat oroimenaren espazio edo bata besteari guztiz lotuta daude kasu honetan? Nola kontatu desagertu direnen istorioak? Espazioak eskusiboki oroimenari eskainia beharko luke edo baita giza-eskubideei? Nola transmititu esperantza bisitari gazteei? Nola eskainiko ditu espazioak errepresentazioa eta transmisioa?” (Parsonsek gaztelaniara egindako itzulpenetik itzulia, Brodsky, 2005: 45). Afera konplexu hauen aurrean Oroimenaren Museoak ez lukeela museo tradizional bat izan behar, ezta hilketa-esparru baten berreraikitze morbido bat, deritzo Brodsky.

OHARRAK

8 | Museoko ateak 2007ko urrian ireki ziren ofizialki. Oraindik ere, bisitak aurretik eta emailez eskatzen badira bakarrik daude onartuta.

Gutxienez museoaren parte bat giza-eskubideetara eskainia ikusi nahi dute giza-eskubideen aldeko hainbat taldek. Honek erakusten du “oroimena bultzatzeko komunitateak egiten dituen kolaborazioak” oroimena eta justizia lotzen dituela (Young, 1988: 189). Izan ere, museoren izena ondokoa da, “Oroimena, eta Giza-eskubideen Promozio eta Defentsa Espazioa”⁹. Miriam Lewisek, ESMA biziraun izan duten 150etako batek, “datozen belaunaldiek akats berdinak egin ez ditzaten museo biziduna” proposatzen du” (Daniels, 2008: 2). Oroimena eta justizia elkartuta, Oroimenaren Museoak iragana, oraina eta etorkizunaren arteko denbora erlazio bat sortzen du, iraganaren oroimena gaur bizirik mantenduz eta, ondorioz, etorkizunean “akatsak” burutzea saihesten lagunduz. Oroimenaren kontzepzio dinamiko hau bere kontzepzio estatikoari kontrajartzen zaio, denboran iraunkor, finko txertaturik, “gure oroimenaren ikonoak oroimenaren idolo bihurtuz”, museo tradizionaletan ohi denez (Young, 1988: 189).

Desagertuen Amek ere museo “bizidun” bat defendatzen dute, bisitariak espazioko eskola, erakusketa, eta emanaldiek parte hartzera, elkar eragitera bultzatuko dituen. Mercedes Morono, organizazioaren liderretako batek honela dio: “Ez dugu museo bat nahi, ez baititugu gure seme-alabak ehortzi. Non dauden esaten ez diguten arte, gure seme-alabak bizirik diraute” (International Justice Tribune, 2008: 2). Museoaren espazioarekin lotutako oroimenaren dokumentazioak eta iritziek bizirik ez hilik ez dauden Desagertuak irudikatzearen zailtasuna azpimarratzen dute. Desagertuen presentzia figuratu bat sortuta, biziraute duen oroimenari eskainitako espazioak beraien bizitzen perspektiba humanitario bat bermatzeko balio izango du. Aldi berean, burututako krimenen frogak begi-bistatik zein oroimenetik desagerrarazten ahalegintzetik aldaratzen du armada, eta banakako gorputzen gizatasuna kendu izana indargabetzeko modu bat da. Oroimen biziduna museoko eraikinetan erabili diren hainbat metodologiaren adibide bat baino ez da. Oroimenaren Museoak zuzendaritza hedatsua dela eta, posible izango da oroimenaren ikuspegi ezberdinak lantzea bertan. Ordea, bisitariak kohesio falta nabaritzeko arriskua ere badago.

4. Ondorioa

ESMA ez da espazio fisiko bat bakarrik; garrantzitsuago dena, oroimenaren biltegi bat da. Bisitariak sartzen diren momentutik edo estruktura ikusgarri horren aurretik pasatzen diren oinezkoek, bertan izango dute eraikina oroigarri. Argentinako nazio kontzientzian ezartzen den oroimen kolektiboa selektiboa da, eta ESMAren inguruan zein ESMA bertan ekoizten diren narratiben arabera izango da. Kontrako bi taldeek, Gerra Zikinaren oroimenaren auzi

OHARRAK

9 | «Espacio para la Memoria y para la Promoción y Defensa de los Derechos Humanos»

etengabeko eta gatazkatsuetan parte hartu dutenak, karakterizatu dute oroimenaren lan lehiakor hori . Eztabaida estatu boterearen “gorgonen burua” izan den eraikin honetan dago sustraiturik, baina orain erregimen honen biktimek Desagertuak gogoratzeko toki bihurtu da (Coetzee, 1986: 4). Museoa proposatu dutenek metamorfosia beharrezkoa dela onartzen duten arren, ezin daitezke ados jarri oroimenerako prozesua gauzatzeko eran. ESMAREN historia azaltzen duen erakusketak beste auzi batzuei ere erantzun behar die: Zein gogoeta etiko, batez ere torturaren errepresentazioei dagozkienak, dira garrantzitsu abian den Oroimenaren Museoan, museoa garatu dutenak zein bisitariak kontuan hartuta? Nola eragingo du historiak bisitariak museoarekin parte hartzeko moduan? Nolakoa da biziraun dutenen museo espazioarekiko elkarri eragitea? Funtzio terapeutikorik al du museoak? Oroimen lan komunalak uzten al dio nazioari dolu egiten eta ahazten? Zeintzuk dira ahaztearen ondorioak? Zer eramango du bisitariak museotik; zer gogoratuko du? Zertan da antzekoa eta zertan ezberdina ESMAREN kasua eta Alemanian kontzentrazio-esparruak museo bilakatzeko izan zen borroka? Nola baldintzatzen ditu ESMA hain ikusgai egiten duen kokapenak oroimenaren eztabaida? Denborak eta Oroimenaren Museoaren etorkizunak bakarrik erantzun ditzakete galdera hauek. Baina ziurra dena, oroimena garrantzitsua dela eta nazio bezala lotzen gaituela, iragana bitartean, menderagaitza, batzuetan basatia, den kontzientzia nazionalaren zoruan, orainaren esperientzian berretsiko da.

Bibliografía

- ADORNO, T. (1986): «What Does Coming to Terms with the Past Mean?», in Hartman, G., ed. *Bitburg in Moral and Political Perspective*, Bloomington: Indiana University Press, 114-129.
- ARDITTI, R. (1999): *Searching for Life: the Grandmothers of the Plaza de Mayo and the Disappeared Children of Argentina*, Berkeley: University of California.
- BRODSKY, M. (2005): *Memoria en construcción. El debate sobre la ESMA*. Buenos Aires: La Marca.
- COETZEE, J.M. (1986): «Into the Dark Chamber: The Novelist and South Africa» *Review. New York Times* 12 Jan. 1986: 13-13. Late City Final Edition, Section 7, Book Review Desk, [03/05/2010], <<http://www.times.com>>.
- CONADEP (1986): *Nunca Más (Never Again): a Report by Argentina's National Commission on Disappeared People*, London: Faber and Faber.
- DANIELS, A. (2008): «Argentina's Dirty War: The Museum of Horrors» *Telegraph* (United Kingdom) 17 May 2008: 1-4.
- FEITLOWITZ, M. (1998): *A Lexicon of Terror: Argentina and the Legacies of Torture*, New York: Oxford University Press.
- FOSTER, D. (2006): *Chasqui: revista de literatura latinoamericana: Memoria en construcción*. 35.2: 137-139.
- GUEMBRE, M. (2008): «Challenges on the Road to Memory» Trans. M. Ciardi. *The Public Historian* February 30.1 63-71.
- INTERNATIONAL JUSTICE TRIBUNE (2008): «ESMA: A collective construction», Radio Netherlands Worldwide, 1-3.
- MCCORMACK, J. (2007): *Collective Memory: France and the Algerian War (1954-1962)*, Lanham: Lexington Books.
- MEMORIA ABIERTA: «Organizaciones de derechos humanos», Memoria Abierta, [03/15/2010], <<http://www.memoriaabierta.org.ar>>.
- SCARRY, E. (1985): *The Body in Pain: the Making and Unmaking of the World*, New York: Oxford University Press.
- SORLIN, P. (1999) «Children as War Victims in Postwar European Cinema», in Winter, J. and Emmanuel, S. (eds.), *War and Remembrance in the Twentieth Century*, Cambridge: Cambridge University Press, 104-124.
- YOUNG, J.E. (1988): *Writing and Rewriting the Holocaust Narrative and the Consequences of Interpretation*, Bloomington: Indiana University Press.